# Euskaltelek "Marea Laranja" dokumentala estreinatu du

***Donostia, 2024ko irailaren 19a.-***. Euskaltel-Euskadi taldeak bere-berea duen ezaugarria da taldeak eta zale guztiek batera familia bat sortu dutela, benetako Marea Laranja. Zale leial eta nekaezinak ditu, txirrindularitza biziki maite dutenak eta beren taldeko kideez gainera beste txirrindulari guztiak ere animatzen dituztenak.

Orain, taldearen historia jaso da dokumental batean, eta **urriaren 6an estreinatuko da dokumentala, 19:40etan, ETB2n**. Ikusgai egongo da, halaber, PRIMERAN euskarazko streaming plataforman. Anbizio handiko proiektua da, Euskaltelek ekoitzia, eta hartan parte hartu dute euskal txirrindularitzaren izenik handienetako batzuek, hainbat kazetari eta entrenatzailek... Baina, batez ere, zaleak dira filmeko protagonista, hau da, Marea Laranja.

**Andrea Naveran**ek, Euskalteleko marka-arduradunak, hau nabarmendu du: *"Film honetan, euskal txirrindularitzaren zaleen —Marea Laranjaren— ezaugarri diren sentimendua, grina eta indarra transmititu nahi ditugu, gure ustez oraindik kontatzeke zegoen istorio baten bidez. Irudi horiek ikusleen bihotza ukituko dute, eta txirrindularitzaren zaleak nahiz zale ez direnak hunkitzeko gai izango dira".*




*Marea Laranjako protagonistak*

euskaltel




**DOSSIER DE PRENSA · PRENTSA DOSIERRA**




## Sinopsis· Zinezko zaleak

Roberto Laisekak Luz-Ardidenen lortutako garaipen historiko hartatik, Marea Laranjak lepo bete ditu txirrindularitza-proba nagusien errepide-bazterrak. Zale leial eta nekaezinak dira, txirrindularitza biziki maite dutenak eta Euskaltel-Euskadiko taldekideez gainera beste txirrindulari guztiak ere animatzen dituztenak.

Film dokumental honek talde baten, kolore baten eta munduan parekorik ez duten zaleen sorreraren historia kontatzen du.

Euskaltelek ekoitzia, anbizio handiko proiektu honetan euskal txirrindularitzaren izenik handienetako batzuek parte hartu dute, eta orobat kazetariek, entrenatzaileek... Baina, beste ezeren gainetik, zaleak dira film honetako protagonistak: Marea Laranja. Ehunka kilometro egiten dituzten pertsonak, txirrindulari guztiei, lehenengoari zein azkenari, aurrera egiteko behar duten bultza-dan laguntzeko.

## Sinopsis. *Una afición de película*

Desde la histórica victoria de Roberto Laiseka en Luz-Ardiden, la Marea Naranja ha cubierto las cunetas de las principales carreras ciclistas. Una afición fiel e incansable, amante de este deporte, que más allá del Euskaltel-Euskadi anima a todos los ciclistas.

Esta película documental cuenta la historia del nacimiento de un equipo, de un color y de una afición única en el panorama del ciclismo internacional.

Producido por Euskaltel, este ambicioso proyecto cuenta con la participación de algunas de las leyendas más importantes del ciclismo vasco, periodistas, preparadores ... Pero, sobre todo, esta película está protagonizada por la afición. Por la Marea Naranja. Por aquellas personas que recorren cientos de kilómetros para aportar ese aliento que se transforma en un empujón de moral para los ciclistas; del primero al último.

## Kartela · *Cartel*



## Ekoizpena · ***Producción***

**Ekoizpen exekutiboa** / *Producción ejecutiva*

Ana Torres Puado; Andrea Naverán Urrutia; Eider Rodríguez Ordoñez

**Zuzendaria** / *Dirección*

Haitz Mendibil; Ekhi Mendibil

**Errealizadorea** / *Realizador*

J.S. Raimundi

**Dokumentazioa** / *Documentación*

Ander Izagirre

**Gidoia** / *Guion*

Zuri Goikoetxea Ainhoa Andraka

**Argazki-zuzendaria** / *Dirección de fotografía*

Arián Quinteiro

**Ekoizpenaren diseinua** / *Diseño de producción*

David Mon

**Edizioa/Muntaketa** / *Edición/ Montaje*

Ainhoa Andraka

**Soinua** / *Sonido*

Borja Freire

**Arte-zuzendaria** / *Dirección de arte*

Haitz Mendibil

**Produkzio-agentzia** / *Producer agencia*

Santi Kumenius